

EUSKADIKO ITSASERTZ ETA LITORALETAN KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEKO PROIEKTUA

Posted on 28/03/2025 by Naider

lhoberen bidez, Eusko Jaurlaritzak ekimen aitzindari bat jarri du martxan, Euskadiko interes komunitarioko eta eskualdeko itsasertz eta litoral habitatak klima-alaketaren aurrean duten ahultasuna eta arriskuak ebaluatzeko, eta etorkizunerako egokitzapena gidatuko duen ekintza plan bat diseinatzeko.

Ekimen hau **Aztirekin** lankidetzan garatzen da, itsas ikerketako erreferentziazko zentroarekin, eta biodibertsitatean, itsas-dinamikan, klima-arriskueta eta egokitzapen-neurrietan espezializatutako talde zientifiko-teknikoa biltzen du. Helburua da metodologia frogatu bat aplikatzea, klima-alaketak ekosistema hauskor horietan izan ditzakeen inpaktuak zehatz-mehatz aztertze eta lehentasundun egokitzapen-neurriak definitzeko, **ekintza plan** batean antolatuta.

Proiektuak, gainera, ikuspegi integrala hartzen du ekintza klimatikoan, bai mitigazio-potentziala bai mal-adaptazio arriskuak eta bien arteko sinergiak kontuan hartuta, Euskadiko plangintza estrategiko eta lege klimatikoarekin bat eginez. Horrela, itsasertz eta litoral ingurunearen erresilientzia sendotzen da, biodibertsitatearentzat ez ezik lurraldearen ongizate sozial eta ekonomikoarentzat ere funtsezkoak direnak.

